


BALANTZEA. Italiarrak oso erraz irabazi du bere lehen Giroa, mendian gora nagusitasun handia erakutsita

Simoni... eta bi euskaldun

Olanok, bigarren, itzuli handietarako duen gaitasuna berretsi du; Unai Osak, hirugarren, etorkizun oparoa du aurretik



ALESSANDRO TROVATI / AP

Abraham Olano anoetarra (ezkerrean), Unai Osa itziartarrari bostekoa ematen, herenegun, podiumean. Erdian, Simoni, Giroko garailea.

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Akabo Giroa. 84. aldia Mario Cipolliniren beste garaipen batekin bukatu zen, Milanen. Zer kontatu franko izan du Giro honek, berri pozgarriak gehienak, ilun samarrak beste batzuk —eta berri pozgarriak ahantzaz ditzakete, zoritxarrez—. Aitzin-etapa eta 21 saioetatik 20 korritu dira, Giroko gogorre-takoa —Coppi gaina zuena (Fauniera mendatea)— bertan behera geratu baitzen aurreko eguneko miaketa iskanbilatsua- ren ostean.

20 edo 21 izan, protagonista gardenak izan ditu XXI. mende-ko lehen Giroak: garailea, aurre- na. Gilberto Simonik azken bi urteetako jarduna ezin hobe bo-robildu du. Hirugarren izan zen 1999an eta iaz, eta podiumeko eskailera garaienera igo da aurt- en. Oso erraz gainera, dizi- plina orotan bikain moldatu baita. Ja- kina zen maglia arrosa igotzaile aparta zela, baina erlojupekoan ere ederki aritu zen, dizi- plina horretako espezialistak gaindi- tuta (Olano, Hontxar...).

Olano, Unai Osa, Cipollini, Quaranta, Garzelli, Pantani...

Ezker-eskuin bi txirrindulari euskaldun izan ditu Simonik po- diumean: Abraham Olano (ON- CE-Eroski) ezkerrean (bigarren sailkapen nagusian) eta Unai Osa (ibanesto.com) eskuinean (hirugarren). Podiumetik gertu egoteko xedea zuen anoetarrak Giro hasieran, eta aise bete du bere nahia. Itziarkoa ondo ari- tzeke nahi xumearekin abiatu zen Pescaratik, eta 25 urte di- tuela lortu du itzuli handi bateko podiumera igotzea lehen aldiz. Bada zerbait.

Podiuma alde batera utzita ere bada zer nabarmendu. Cipo- lliniren lau garaipenak. Giroan garaipen gehien lortu duen bi- garren karrerista da jada esprin- terra. Ivan Quarantaren bi eta- pak ere aintzat hartu behar dira etorkizunari begira. Baita Cauc- chiolik lortutako biak ere.

Kontrako aldean, porrot egin dutenen zerrenda ere nahiko za- bala izan da. Iaz nagusitu zen Garzellirekin hasi, Pantanirekin jarraitu (biek lasterketa utzi zu- ten) eta Savoldellirekin bukatu (14. sailkapen nagusian).

Txirrindularitza osoaren aur- ka asteazken gauean hasitako iskanbilak kirol lorpenek baino oihartzun eskasagoa izan deza- la aurrerantzean.

Simoni, berandu heldutako fruitua

BILAKAERA. 1998an aita eta anaia galdu zituen, eta, urtebete lehenago Trentinoko Giroan bere palmaresa estreinatu bazuen ere, etorkizunik gabeko ziklistatzat zeukan bere burua

Xabier Usabiaga | DONOSTIA

K irolarien ahaleginak eta lorpenak ulertze- ko denbora ezinbeste- koa da, egindakoari behar adi- nako balioa ematen laguntzen du, juzgu objektiboagoa erraz- ten. Horrela, orain hobeto in- terpretatzen dugu 1995ean, ar- tean 22 urte baino ez zituela, profesioletarako lehen den- boraldian oraindik, Urkiolako Igoeran 10. postuan (hur- ren- go urtean laugarren) sailka- tu zen Gilberto Simoni izene- ko italiar ezezagun haren pedal- kada arin eraginkorrek lorpen handiak erdietsi behar zituen gazte itxaropentsuarenak zi- rela.

Egun badakigu zergatik egon zen 1998an, Giroan 58. izan zenean, bizikleta uzteko- tan, eta, aldi berean, Giro ho- netako zenbait egunetan era- kutsitako ausardia irakurtzea errazagoa da, denbora lagun. Orain, Giroa irabazi duelarik, atzean utzitako itzala argitu

duen distiraren jabe da Simo- ni, 1971ko abuztuaren 25ean Palu di Giovon (Trentino) jaiotako gizasemea.

Egun, ezagunak dira bere bertute eta akatsik gehienak. Fisikoki eskalatzailea (60 kilo pisatzen du) eta oso erregula- rra da, eta psikologikoki, azke- naldian asko heldu bada ere, ahul samarra, arazoak gaindi- tzeke zailtasunak dituen ho- rietakoa. Oztoporik ezak gala- razi zion atal hori indartzea. Afizionatueta, non besteak beste Italiako Giroa eta Italia- ko Txapelketa irabazi zituen, ziklismoaren benetako erre- alitatea ukatzen zion gezurrez- ko burbuila batean zegoen ha- rrapatuta. Ziklismoaren alde bakarra ezagutzen zuen, arra- kastarena.

1994an pasatu zen profesio- naletara, Jolly talde apalare- kin, eta karrerak korritzen hasi orduko burbuila zulatu eta munduaren gordina ezagutu zuen. Afizionatueta erraz menderatzen zituen txirrin- du-

lariek barre egiten zioten, eta, esaterako, Pantanik arrakas- tari arrakasta lotzen zion ga- raian, Simoni iparra galduta zebilen, noraezean. Zaildu ga- bea zegoen inoiz irudikatu ga- beko trabak gaintzeko. 1998an aita eta anaia galdu zi- tuen, eta, urtebete lehenago Trentinoko Giroan bere pal- maresa estreinatu bazuen ere, etorkizunik gabeko ziklista- tzat zeukan bere burua.

Eguraldi euritsuari etekin handia

Hala, itxaropen arrastorik gabe, bizikleta denda bat ireki zuen, bere garaian Francesco Moser herrikideak egin beza- la, baina harekiko badu, Giroa palmaresean izateaz gain, beste parekotasunik. «Mose- rren antza pittin bat badut», esan zuen iazko apirilaren 19an, elkarrizketa batean, «euria egiten duenean, gustu- ra sentitzen naiz». Ez dauka birritan esan beharrik, argi eta garbi adierazi du errepedean,

Giro honetan. Egunik euri- tsuenetan lortu ditu errentarik handienak: lehen etapan, ia tropel osoa hankaz gora joan zen hartan, berak sortu zuen ihesaldia eta haren eraginez erori eta erretiratu zen Fran- cesco Casagrande; 12. etapan, aldapan behera ihes eginik, hamar segundo jan zizkien beste hautagai guztiei; eta 20.ean, Giroa biribiltzeko falta zuen etapa garaipena lortu zuen, euria goian behean zela Aronako helmugan, eta, bide batez, azken 28 urtetan sailka- pen nagusian izan diren dife- rentziarik handienak eragin zi- tuen.

Baina mendiko jardunaren aldean, harri eta zur utzi ditu aurkariak Giroko garaileak er- lojupekoan. «Bizikleta gaine- ko postura aldatu egin dut, eta potentziaren lekuan arintasun- na landu dut entrenamendu saioetan. Gainera, orain, takti- koki ere argiagoa naiz», azal- du du berak. Ez dago zalantza- rik.